

## XEDAPEN OROKORRAK

### ARARTEKOA

## 2584

*EBAZPENA, Arartekoarena, 2016ko ekainaren 7koa, ararteko.eus domeinua ezartzekoa eta 2012ko martxoaren 26ko Ebazpena, egoitza elektronikoa sortu eta Ararteko erakundearekin baliabide elektronikoen bidezko harremana ezartzekoa, aldatzekoa.*

2012ko martxoaren 26an, arartekoak ebazpen bat eman zuen, egoitza elektronikoa sortzeko eta Ararteko erakundearekin baliabide elektronikoen bidezko harremana ezartzeko. Ebazpen hura 2012ko maiatzaren 20an argitaratu zen EHAAan.

Arartekoak Interneten ararteko.eus domeinu berria abiaraztea erabaki du, Ararteko erakundeak Interneten duen presentziaren eredu gisa.

Beraz, kontuan hartuta ararteko.eus domeinu berriak Arartekoaren egoitza elektronikoen helbidean nahiz web-atarian eragiten duela, ebazpen hura aldatu beharra dago puntu horri dago-kionez, eta gainontzeko artikuluek berdin dirautela adierazi behar da.

Horren arabera, hauxe erabaki dut:

Artikulu bakarra.— Arartekoaren 2012ko martxoaren 26ko Ebazpenaren 2. artikulua aldatu behar da. Honela idatzita geratuko da: Arartekoak egoitza elektronikoa nagusi bat dauka, <https://sede.ararteko.eus> helbide elektronikoa; horretan zuzenean sar daiteke, baita Interneteko <http://www.ararteko.eus> atariaren bitartez ere.

### AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea. Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 7a.

Arartekoa,  
MANUEL LEZERTUA RODRÍGUEZ.